

Pribatutasun-politika

EUSKALTEL ALARMAK

Pribatutasun-politika hau eskaintzen dizugu, gure webguneak [<https://www.euskaltelalarmak.com> eta haiekin erlazionatuak] (aurrerantzean, Webgunea) atzitzen dituzunean, haietan nabigatzen duzunean edo haietako funtzionalitateak erabiltzen dituzunean zure datuen tratamenduari buruzko alderdi guztien berri izan dezazun. Kasu horietan, jotzen dugu irakurri eta ulertu dituzula datu pertsonalak babesteari buruzko terminoak, zeinak bat baitatuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/769 Erregelamenduari, pertsona fisikoak babesteari buruzkoarekin, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokionez, eta indargabe uzten baitu 95/46/EE Direktiba (aurrerantzean, "DBEO"). Gure aldetik, araudi hori betetzeko eta zure datuak modu legezko, leial eta gardenean tratatzeko erantzukizuna hartzen dugu. Gure enpresak eskainiko du zerbitzu hau, baina EUSKALTEL ALARMAK markaren izenean egingo dugu, alarma-zentraleko segurtasun-zerbitzuak eskaintzeko Kontratua (aurrerantzean, Kontratua) adostutako baldintza partikularrekin bat etorritik. Gogorazten dizugu Webgune hau erabiltzen duzunean egiten dugun datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa bakarrik ematen dizugula. Baldin eta alarma-zentraleak instalatzeko, mantentze-lanak egiteko eta ustiatzeko eskaintzen ditugun segurtasun pribatuko zerbitzuak kontratatzea erabakitzen baduzu, behar den garaian jakinaraziko dizkizugu zerbitzuaren erabilera-baldintzak eta gorago adierazitako Zerbitzuaren Baldintza Partikularren bidez egiten den datu-tratamendua.

Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

EUSKALTEL SAU da tratamenduaren arduraduna (aurrerantzean, EUSKALTEL ALARMAK). IFZ A-48766695 du, egoitza soziala Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160, Derio, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratua dago (3.271 liburukia, 212 folioa, BI-14727 orria, 1. inskripzioa):

- Webgunean nabigatzen duzunean ematen dituzun datuak;
- Webguneko inprimaki eta harpidetza-buletinak betetzen dituzunean ematen dituzun datuak;
- Erabiltzen ditugun cookieek jasotako datu guztiak. Horrenbestez, EUSKALTEL ALARMAKek zehazten ditu helburu edo xedeak eta ezartzen ditu zure datu pertsonalak tratatzeko garaian haiek babesteko beharrezkoak diren baliabideak. Zure datuen tratamendu egokia bermatzeko, datuak babesteko ordezkari bat izendatu dugu, eta hari zuzendu ahal izango zaitzaizkio zure datuen tratamenduari edo zure informazio pertsonala erabiltzeari buruzko edozein kontsulta, iruzkin, zalantza edo iradokizun baldin baduzu helbide honetara jo beharko duzu: dpd@euskaltel.com

Nor da zerbitzua eskaintzearen arduraduna?

SICOR SEGURIDAD EL CORTE INGLÉS SL DGP 3247 da (aurrerantzean, SICOR) Alarmen Balio Erantsiaren Zerbitzua (aurrerantzean, SVA Alarmas) ematearen arduraduna. IFZ B-84128032 du, eta egoitza soziala Maestro Alonso kaleko 24.ean (28028, Madril). Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatua dago (519 liburukia, 8. atala, M-9880 orria, 1. inskripzioa).

Nola lortu ditugu zure datuak?

Zugandik jaso ditugu zure datu pertsonalak, zure eskura jarri dugun inprimaketakoren bat betetzen duzunean gure Webgunean nabigatzen ari zarela (esate baterako, informazioa eskatzeko eta/edo gure agente komertzialetakoren batekin harremanetan jartzeko eskatzen duzunean), edo gure webgunea erabiltzen duzunean aktibatzen dituzun cookieen bidez. Zure datuak jasotzen ditugun unean, jakinaraziko dizugu nor den tratamenduaren arduraduna eta zein den tratamenduaren helburua, nork jasoko duen informazioa eta zein modu dituzun datuen babesaren inguruan indarrean den legediak ematen dizkizun eskubideak gauzatzeko. Pribatutasun-politika honen arabera inprimaketan sartzen dituzun datu guztien egiazkotasuna eta benetakotasuna bermatzen duzu, eta zure arduraren izango da informazioa eguneratzea, zure benetako egoeraren berri emateko moduan. Beraz, une bakoitzean ematen duzun informazioaren zehaztasun ezaren edo egitasun faltaren erantzulea izango zara.

Zer motatako datuak tratatzen ditugu?

Une bakoitzean erabiltzen dituzun zerbitzu edo funtzioen arabera, zuri buruzko datu pertsonal batzuk edo beste batzuk tratatu beharko ditugu; oro har, kasuaren arabera, hauek izango dira:

- Identifikazio-datuak; esate baterako, zure izen-abizenak.
- Harremanetarako datuak; esate baterako, zure telefono-zenbakia, posta-helbidea edo posta elektronikoko kontua.

Gure webgunean sartzen diren edo gure aplikazioa deskargatu duten erabiltzaile guztien informazio pertsonal mugatua eta estatistika orokor anonimoak biltzen eta gordetzen ditugu, bai informazio hori modu aktiboan ematen diguzulako, bai gure webguneetan nabigatze hutsarekin eskuratzen delako. Informazio horri esker, jakiten dugu zenbat denboran kargatzen diren gure webgunea eta aplikazioa, nola erabiltzen diren, zenbat bisita jasotzen dituen atal bakoitzak, eta, hala, jakin dezakegu zein informaziok erakartzen dituen gehien bisitariak, eta webguneak eta aplikazioak behar bezala funtzionatzen duten edo ez, funtzionamendu-akatsak detektatzeko eta haiek konpondu ahal izateko. Informazio hori cookieen bidez jasotzen da; informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu cookieen politika.

Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datuak, eta zer oinarri legitimatzaileekin?

Gure webguneekin egiten duzun interakzioaren arabera (biak adierazten dira Politika honen hasieran), zure datu pertsonalak helburu baterako edo besterako erabiliko ditugu. Jarraian agertzen den koadroan erakusten da zure datuak zer helbururekin trata daitezkeen, EUSKALTEL ALARMAKekin duzun loturaren eta lotura horren oinarri juridikoen arabera:

- Kontratu-egikaritzearen edo kontratu aurreko harremanen kudeaketaren arabera:
 - EUSKALTEL ALARMAKek merkaturatzen duen eta SICOREk eskaintzen duen alarma-zerbitzua eskaintzeko. Horregatik, SICOREk zure datuak tratatuko ditu zurekin kontratu- eta/edo merkataritza-harreman bat dagoen artean, edo zure datuen tratamendua mugatzeko edo haiek ezabatzeko eskubidea gauzaten ez duzun artean. Zure datuak ez dira gordeko kontratuzko harremana amaitzen denetik sei urte baino gehiagoan. Zehazki, zure datuak bost urtean gordeko dira, zerbitzua amaitzen denetik hasita. Alarma-sistemaren instalazioaren edo haren funtzionamenduaren inguruan (eskuratutako zerbitzua) izan daitezkeen gorabeherak kudeatzeko. Horregatik, zure eskaera artatzeko behar den

denboran tratatuko ditugu zure datu pertsonalak. Informazio gehiago [\[SICORen pribatutasun-politikaren esteka\]](#).

- Interesatuaren baimenaren arabera:
 - Gure zerbitzuei buruzko merkataritza-komunikazioak kudeatzeko. Zure datuak gordeko ditugu, emandako baimena kentzen ez duzun artean.
 - Gure inprimakien bidez egiten dituzun informazio- edo kontaktu-eskaerak kudeatu ahalko ditugu. Zure datuak urtebetean gordeko dira, eskaera kudeatzen denetik.
 - Baimena ematen baduzu:
 - EUSKALTEL SAUk zure datu pertsonalak tratatuko ditu Grupo MásMóvil taldearen produktu edo zerbitzuei buruzko komunikazio komertzialak bidaltzeko; hor sartzen dira telekomunikazio-zerbitzuak nahiz bestelako zerbitzuak (esate baterako, energia-, segurtasun-, eta finantza-zerbitzuak nahiz kontsumo handikoak —norberaren zainketa, teknologia, etxea, elektronika eta informatika—) eta aisialdikoak. Edozein unetan ukatu ahal izango duzu zure baimena, eta datuen babesaren inguruan dituzun eskubideak gauzatu ahalko dituzu, helbide honetara idatzita: docu@euskaltel.com
 - Cookieen bidez, zure lehentasunak, interesak, portaera eta beste alderdi batzuk aztertu edo aurrean ditzakegu.

Gogorarazten dizugu zure baimena libreki eta doan ukatu dezakezula edozein unetan, helbide honetara idatzita: docu@euskaltel.com

Bestalde, gogorarazten dizugu zure informazioa behar den moduan blokeatuta izango dugula, erabili gabe, erreklamazioak gauzatzeko edo defendatzeko erabilgarria izan daitekeen artean, edo artatu beharreko erantzukizun judizial, legal edo kontratuzkoren bat erator badaiteke haren tratamendutik, eta, horretarako, hura berreskuratu behar bada.

Nori jakinaraz diezazkiokegu zure datuak?

Ez dugu aurreikusten zure datu pertsonalak hirugarren erakundeei jakinarazterik, EUSKALTEL ALARMAKeko enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkietenei izan ezik, pribatutasun-politika honetan adierazten diren helburuak behar bezala gauzatu ahal izateko, eta eskaintzen dizkizugun zerbitzuak eman ahal izateko, betiere gure jarraibide zehatzen arabera. Zerbitzu horiek gauzatzeko behar-beharrezkoa den informazio pertsonalera bakarrik dute sarbidea erakunde horiek, eta zure informazio pertsonalaren konfidentziasuna mantentzera eta informazioa beste moduren batean ez erabiltzera behartuta daude; adibidez:

- Informazioaren teknologiako zerbitzuen hornitzaileak.
- Segurtasun-zerbitzuetako eta alarmen instalazioko zerbitzuetako hornitzaileak eta laguntzaileak.
- Logistika- eta garraio-zerbitzuen hornitzaileak.

Nolanahi ere, EUSKALTELek hartzen du webgunearen bidez ematen diguzun informazio pertsonalaren erantzukizuna, eta zure informazio pertsonala partekatzen dugun enpresei eskatzen diegu guk aplikatzen dugun adinako babes-maila aplikatzeko. Hala ere, eta aplikatu behar ditugun legezko betebeharrak betez, zure datu pertsonalak epaile, auzitegi eta beste erakunde eskudunei eta horretarako ahalmena duten eragileei jakinarazi ahal izango dizkiegu, eskatuz gero.

Zer eskubide dituzu?

Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, eskubide hauek dituzu EUSKALTEL ALARMAK en aurrean:

- Eskubidea duzu zure datu pertsonaletara irispidea izateko, eta zer datu tratatzen ditugun eta zer helbururekin egiten dugun jakiteko.
- Eskubidea duzu zuri buruz ditugun okerreko datuak edo eguneratu gabeak zuzentzeko.
- Eskubidea duzu iruditzen zaizkizun tratamenduei aurka egiteko, betiere horretarako aukera ematen duen arrazoiren bat baldin badago.
- Eskubidea duzu zure datuak ezabatzeko eskatzeko, esate baterako, dagoeneko ez direnean beharrezkoak jaso ziren helbururako.
- Eskubidea duzu zure datuak formatu egituratu batean tratamenduaren beste arduradun bati eman dakizkion eskatzeko.
- Egoera jakin batzuetan, zure datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahalko duzu.
- Aurka egin diezaiokezu zure datuak modu automatizatuan tratatzeari, baldin eta horrek ondorio esanguratsuak eragiten badizkizu.
- Eskubidea duzu aldeztu aurretik eman diguzun edozein baimen atzera botatzeko.

Eskubide horiek gauzatzeko, idatzi eta sinatu eskaera eta bidalita hona:

- Datuen Babesa, Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160, Derio. NANaren edo eskatzaile gisa identifikatzen zaituen beste edozein dokumenturen edo daturen fotokopia erantsi beharko duzu.
- docu@euskaltel.com helbide elektronikora. NANaren edo eskatzaile gisa identifikatzen zaituen beste edozein dokumenturen edo daturen fotokopia erantsi beharko duzu.

Halaber, eskubidea duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko, baldin eta jotzen baduzu zure datuak ez direla behar bezala tratatu datu pertsonalen babesaren inguruko araudiari jarraituz, edo ez bazaude ados zure eskubideak gauzatzeko eman zaizun erantzunarekin, halakorik izan bada (kontsultatu www.aepd.es webgunea).

Pribatutasun-politika hau aldatu ahal izango da?

Datuen babesaren informazioa berraztertu eta eguneratuko dugu Legedian edo zure informazio pertsonala tratatzeko prozeduraren batean aldaketak daudenean berraztertu eta eguneratuko dugu datu-babesari buruzko informazioa.